


INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2015eko otsaila

Euskal AEko industri jarduera %1,8 murriztu zen 2015eko otsailean

Aurreko hilarekin alderatuta %0,6 gutxitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2015eko otsailean %1,8 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2014ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %0,6 gutxitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2015eko urtarilarekin alderatuta.



2015eko otsailean, 2014koaren aldean: *Kontsumo ondasunetan* %+8,4. Hauen barruan, *Iraunkorretan* %+18,5, *Ez-iraunkorretan* %+4,7. *Energiaren indizean* %-9,5; *Bitarteko ondasunenetan* %-3,3; *Ekipo-ondasunenetan* %-0,8.

Hil arteko aldaketa, 2015eko otsaila urtarilaren aldean, positiboa izan da *Ekipo ondasunetan*, %4,1, eta *Bitarteko ondasunetan* %0,4. *Energia* %14,6 jaitsi da, eta *Kontsumoko ondasunak*, guztira, %0,4; *Ez-iraunkorrekoak* %-1,1 eta *Iraunkorrekoak* %+1,4.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2015eko otsailean, urte artean: *Elikagai-industriak, edariak eta tabakoa* %3,2; *Makineria eta ekipoa* %2,3.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntza-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-3,2
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-6,1
09 - Kautxua eta plastikoak	-2,5
13 - Makineria eta tresneria	2,3
14 - Garraio-materiala	-8,9
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	3,2
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-3,6
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-0,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Jaitsierarik handienak urte artean: *Garraio materiala* %8,9; *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* %6,1, *Material eta ekipo elektrikoa* %3,6.

Lurraldeei dagokienez, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan: Araban %5,0 jaitsi da, Gipuzkoan %1,2, Bizkaian %0,7. Hil artean, 2015eko urtarrilaren aldean: Araban %+1,7, Bizkaian %-5,5, Gipuzkoan %+3,5.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Aldakuntza-tasak. Behin-behineko datuak. 2015eko otsaila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Ots2015/Ots2014	M(Ots2015)/M(Ots2014)*	Ots2015/Urt2015	Urt2015/Abe2014
Indize orokorra				
Euskal AE	-1,8	-0,7	-0,6	-1,4
Araba/Álava	-5,0	-6,1	1,7	-0,5
Bizkaia	-0,7	2,9	-5,5	1,4
Gipuzkoa	-1,2	-1,3	3,5	-4,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	8,4	8,7	-0,4	4,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	18,5	20,1	1,4	5,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,7	4,8	-1,1	3,6
Ekipo-ondasunak	-0,8	-2,1	4,1	-8,0
Bitarteko ondasunak	-3,3	-3,5	0,4	-0,8
Energia	-9,5	0,9	-14,6	10,7

(*) 2015eko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2014ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

OHARRA:

2015eko urtarrileko Industri Produkzioaren Indizearen behin-behineko datuak berrikusi egin dira, indizea osatzen duten unitateetako batek emandako datuetan akats bat antzeman ondoren.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua